



**Oharrak,
agiria bakarka
eta taldean
irakurteko eta
hausnartzeko**

Amoris laetitia

**FRANTZISKO Aita
Santuaren
Aholku-hitza**



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

Ebanjelizazio eta katekesirako ordezkaria
Familia

Aurkezpena

***“Aholku-hitz hainbat gai lantzen dau beste hainbeste estiloz.
Horregaitik da hain luzea. Beraz, ez geunke hasieratik amaierara
presaka irakurri behar. Bai familiek eta bai familia pastoraltzarako
eragileek be hobeto aprobetxatuko dabe atalez atal, patxadaz,
aztertzen eta sakontzen badabe.” (7)***

Hamar gidaz osatutako baliabidea aurkeztuko dogu testua irakurteko; gida bat sarrerarako (1-7) eta Aholku-hitzaren bederatzi kapituluetarako beste bana. Gida bakotxean haxe aurkituko dogu: testuari jagokon aurkibidea; edukinen aurkezpen laburra eta hausnarketa eta alkarrizketarako jarraibide batzuk galdeketa erara. Gida bakotxean, gainera, otoitzaldia egiteko aukerea be eskaintzen da.

Hausnarketa eta alkarrizketa eragiteko eskaintzen doguzan jarraibide eta galdeketak proposamen bat baino ez dira eta edozein persona eta taldek landu daikez. Hori bai, ezinbestekoa da erabiliko dabegan persona eta taldeei egokitasunez moldatzea. Jakin-min edo interes gehien bizten dabon puntuak aukeratu daitekez; kontu batzuk zehaztu edo aldatu; barriak gehitu... eta egoeraren araberrako landinamikarik egokiena ezarri.

Jakina, aldez aurretik bakarka irakurri eta hausnartutakoa baino ezingo da taldean batera jarri. Taldean alkarrizketan jardun ahal izateko, jagokon gidan aurkeztutako kontuei buruz bakarka egindako lanaren inguruko ohar batzuk idatziz jasota eroatea komeni da.

Badago ibilpide honi ekin aurretik kontuan hartu behar dan (bakarka

edo taldean) beste gai bat be: ze baldintzatan eta ze motibazinogaz ekiten deutso gutako bakotxak edo gure taldeak aurrez aurre dogun lanari. Hasterakoan, lagungarri izan daiteke ondorengo puntuen inguruan alkarrizketan jardutea:

- A) *Amoris laetitia* aholku-hitz honen irakurketari ekitean, zer itxaroten dozu agiriaz, ze aukera ikusten deusazu? Ze bilatzen dozu bertan? Aurkituko ete dozu ezer? Zer dakizu Aholku-hitz honi buruz? Entzun dozu ezer agiriaren inguruan?
- B) Ze helburu jarten dogu talde lez lan honi ekiterakoan? Ze itxaroten dozu eta eskatzen deusazu baterako irakurketa eta hausnarketarako taldeari? Ze ibilpide (batzarrak, metodologia, egutegia...) garatuko dogu?

Aurkibidea

<i>Sarrera: Maitasunaren poza.....</i>	<i>3. orr</i>
<i>1. kapitulua: Hitzaren Argitan.....</i>	<i>6. orr</i>
<i>2. kapitulua: Familien gorabeherak eta erronkak.....</i>	<i>9. orr</i>
<i>3. kapitulua: Jesusi begiratuz: familiaren bokazinoa</i>	<i>13. orr</i>
<i>4. kapitulua: Maitasuna ezkontzan.....</i>	<i>18. orr</i>
<i>5. kapitulua: Maitasuna emonkor bihurtzen da.....</i>	<i>25. orr</i>
<i>6. kapitulua: Pastoral aukera batzuk.....</i>	<i>29. orr</i>
<i>7. kapitulua: Seme-alaben hezkuntza sendotu.....</i>	<i>34. orr</i>
<i>8. kapitulua: Laguntasuna, bereizmena eta integrazinoa hauskortasunean.....</i>	<i>38. orr</i>
<i>9. kapitulua: Ezkontza eta familia espiritueltasuna.....</i>	<i>43. orr</i>

Sarrera

Maitasunaren poza

[1-7]

Aurkezpena

Agiriaren lehenengo zazpi zenbakietan, hau da, sarreran, idazki osoaren inguruko giltzarri batzuk eskaintzen dira.

Amoris laetitia dalakoa, familiaren eremuko pastoraltzaren era bateko eta besteko errealidadeetara zabalduko alkarrizketa biziaren barruan kokatzen da. Beti be, honako hau kontuan hartuta: “*Eleizan doktrina eta praktika buztartzea, alderdi bion batasuna, ezinbestekoa bada be, horrek ez dauka gararazoten doktrinaren alderdi batzuk edo doktrinatik eratorren diran ondorio batzuk ulertzeko hainbat era egotea. Gainera, herrialde edo lurralde bakotxean, lekuko kulturaren txertatuta dagozan, lekuko ohitura eta erronkak aintzat hartzen dabezan konponbideak bilatu daitezke, «kulturen artean alde handiak dagozalako eta oinarri orokor guztiak [...], kontuan hartuko eta ezarriko badira, nahitaez txertatu behar diralako kulturaren»*”. (3)

Hauxe litzateke aholku-hitz honen helburu nagusia: bertan jasoten diran edukinek “*bideratu daieela hausnarketa, alkarrizketa edo pastorgintza eta,aldi berean, adorea, bizigarria eta laguntasuna emon deieela familiei euren eskaintzan eta zailtasunetan*”. (4)

Eta Errukiaren Urte Santuaren testuinguruan, hauxe adierazoten dau Frantzisko Aita Santuak aholku-hitz hau dala-eta:

- “*kristau familientzako proposamentzat daukat, ezkontzaren eta familiaren doeak baloratzen eta bihotz-zabaltasuna, konpromisoa, leialtasuna edo eroapena lako balioez betetako maitasun sendoa suspertzen lagunduko deuten proposamena*”. (5)

-“*danei adore emotea dau xedetzat, erruki eta hurkotasunezko zeinu izan daitezkan familia bizitza bikaintasunez edo bakez eta pozez garatzen ez danean*”. (5)

Kontua ez da, beraz, bakarrik proposamen teoriko edo arauemoileak eskaintzea, “*familien bizimodu zehatza, hainbat errealidade eta egoeratan, era ebanjelikoan babestea, laguntzea eta suspertzea*” baino.

Sarrerako azken esaldian, Espirituagan uste osoa dabenen berariazko berbaera positiboa antzematen da: “*Agiri hau irakurten dauan bakotxak familien bizitza maitasunez zaintzeko deitzat hartu daiala, hareek «ez diralako arazoa, batez be, aukera baino»*”. (7)

Hausnarketa eta alkarrizketarako argibideak

- Irakurri, arkatza eskuan dozula, Aholku-hitzaren 1-7 zenbakiak. Azpimarratu interesgarrien gertatzen jatzuzan esaldi edo ideiak. Gogoan hartu ondo ulertu ez dozuzan puntuak edota taldean argitu gurako zeunkezanak eta batzarrean aurkeztu.

Itaunketa

- 1- Ze emoten deusue aditzera aholku-hitzaren *Amoris laetitia* tituluak «Familiako maitasunari buruz» azpituduluak?
- 2- Aholku-hitzaren lehen zazpi zenbakietan jasoten diran baieztapenen artean, zeintzuk gertatu jatzuz deigarrien? Zergaitik?
- 3- Zelan baloratzen dozu Frantzisko Aita Santuak aholku-hitz hau argitaratzerakoan dauan helburua? Zeintzuk izan daitezke, zure ustez, zailtasun nagusiak, dalako helburu hori garatzeari begira? Zelan lagundu daiegu, bakarka eta taldean, garapen horretan?
- 4- Zenbateraino zatoz bat, familiak “*ez dira arazoa, batez be, aukera baino*” esaldiaz? Ze jarrera dozu gure inguruko ezkontza eta familiari buruz (ilusinoa, ardura, ezkortasuna, itxaropena,...)?

Otoitzaldia

1- Isiltasuna egingo dogu, landutako idazkiek gugan eragin dabezan ideiak, sentimentuak, jarrerak... pausatu daitezana.

2- Jaungoikoaren Hitzaz entzungo dogu.

Jn 16, 12-15

"Jesusek esan eutsen ikasleei:

«Badot oraindik hamaika gauza esateko, baina oraingo ez zarie gauza ondo ulertzeko. Baina egiaren Espiritua etortean, egia beterraino gidatuko zaitue. Ez da mintzatuko bere kabuz; osteraz, nik jakinarazoko deusodana adierazo eta etorkizuna iragarriko deusue. Berak nire Jainko-aintza azalduko dau, adierazoko deusuen niganetik hartuko dau-eta. Aitak dauan guztia nirea da. Horregaitik esaten deusuet Espirituak niganetik hartuko dauala adierazoko deusuenaz»".

3- Hitz honek argi egiten ete deusku aholku-hitzaz irakurteko asmoan? Batera jarri daigun Hitzaz esaten deuskuna.

4- Amaitzeko "Contigo me la juego" Alvaro Fraileraren abestia entzungo dogu. Labur-labur, abestia aditzera emon deuskun zerbait komentatuko dogu.

Hemen aurkitu daikegu abestia:

<http://www.nuestroproyecto.net/2014/11/05/contigo-me-la-juego/>

Lehenengo kapitulua: Hitzaren argitan

<i>Sarrera</i>	[8]
<i>Zu eta zure emaztea</i>	[9-13]
<i>Seme-alabak olibondo-kimu lez</i>	[14-18]
<i>Oinaze eta odolezko bidezidorra</i>	[19-22]
<i>Zure eskuen nekea</i>	[23-26]
<i>Besarkadaren samurtasuna</i>	[27-30]

Aurkezpena

Aholku hitzaren sarreran, lehen kapitulu hau *“Idazki Santuetan oinarritutako irekiera”* lez aurkezten zan (6). Berba horreen atzean, Bibliako testuren baten inguruko hausnarketa sakon eta zabala aurkituko ebala pentsatu eikean norbaitek baina, horren orde bestea hau aurkituko dau: Bibliako hainbat txatalen bitartez, makina bat familia egoera islatzen dauan mosaiko antzekoa. Biblia, leinu edo sendi lez agertzen jakula esan daiteke eta bertan Jaungoikoak giza familian dauan eten bako presentzia eta jarduera islatzen dala eta zelan Jesusek berak parte hartu eban familiaren eguneroko egoera eta esperientzietan.

Aholku-hitzean be holantxe aurkezten da:

“Biblia familiez, belaunaldiez, maitasunezko istorioez, familia krisiez... josita dago, lehenengo orrialdetik azkeneraino”. (8)

“Ibilpide labur honetan ikusiko dogunez, Jaungoikoaren Hitza ez da tesi abstraktuen sekuentzia lez agertzen, bidelagun lez baino.” (22)

128 Salmoaren inguruan egituratzen dira kapitulu honen atal desbardinak. Honeetan, familiaren oinarrizko osagai edo alderdien inguruko era askotako makina bat erreferentzia metatzen da.

Atal honeetako bakotxean, Itun Zaharreko zein Barriko idazki ugari eta anitz aitatzen da, eurotara jo daigun.

Era berean, familia bizitzako era bateko eta besteko alderdiak agertzen dira, Jesusen jokaera edo hitzak jasoten dabeznan ebanjelioko txatalen bidez, eta baita Eginen liburutik, Pauloren gutunetatik, Pedroren I. gutunetik eta Apokalipsitik ateratako idazkien bidez.

Hauxe esaten da kapituluaren amaieran: *“Fede eta maitasunetik, grazia eta konpromisotik, giza familia eta Jainko Hirutasunetik egindako begirada honegaz, Jaungoikoaren Hitzak, Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren arteko batasunaren irudi izango dan gizakien batasuna osotu daien, gizonaren, emakumearen eta seme-alaben esku izten dauan familia ikusten dogu”*. (29)

Hausnarketa eta alkarrizketarako argibideak

- Irakurri, arkatza eskuan dozula, Aholku-hitzaren 8-30 zenbakiak. Azpimarratu interesgarrien geratzen jatzuzan esaldi edo ideiak. Gogoan hartu ondo ulertu ez dozuzan puntuak edota taldean argitu gurako zeunkezanak eta batzarrean aurkeztu.
- Kapitulu honetan aitatzen diran Bibliako txatal guztiak irakurtea nekeza gertatu badaiteke be, irakurri eizuz ahalik eta gehienak. Batek baino gehiagok harrituko zaitu.

Itaunketa

- 1- Aholku-hitz honen lehenengo kapitulua irakurri ondoren, zein da agiriaz dozun eretxi orokorra?
- 2- Antzematen ete dozu idazki orokorraren atzean Jaungoikoak giza familiarentzat dauan egitasmoaren sakoneko ardatzik? Zer nabarmenduko zeinke ikuspuntu orokor horretatik?
- 3- Edukinari jagokonez, kapituluko ze atal gertatu jatzu esanguratsuen?
- 4- Aukeratu sakonago aztertu gura dozun edo memorian gorde gura dozun kapitulu honetako esaldiren bat.
- 5- Irakurketa honetatik, atera zeinke aplikaziorik zure bizitzarako eta familia hartu-emonetarako? Zein?

Otoitzaldia

1- Isilunea egingo dogu, taldeko alkarrizketak eragindako sentimentuak, ideiak, jarrerak, probokazinoak azaldu daitezcan

2- Jaungoikoaren hitzera joko dogu.

Hauxe irakurri daiteke lehenengo kapitulu honen hasieran: *“Jesusek deskribatzen dituan etxe biak, harkaitzaren gainean eraikitakoa eta harearen gainean eraikitakoa, kideen askatasunak sortutako makina bat familia egoeraren adierazpen sinbolikoa dira”*. (8)

Mateo 7, 24-27

"Beraz, nire hitz honeek entzun eta beteten dituana, etxea harkaitz gainean eraiki eban gizon zuhurraren antzekoa da. Euri-jasak izan ziran, uholdeak etorri, mendebalak jo, eta etxeari eraso eutsen; baina ez zan erori, oinarriak harkaitzean ebazalako. Nire hitz honeek entzun bai, baina beteten ez dituana, ostera, etxea hare gainean eraiki eban gizon zentzubakoaren antzekoa da. Euri-jasak izan ziran, uholdeak etorri, mendebalak jo, eta etxeari eraso eutsen; eta erori egin zan eta dana hondatuta gelditu".

Ebanjelioko txatalak aditzera emoten deuskuna batera jarri.

3- Otoitz egingo dogu danok batera 128 Salmoagaz

“Zorionekoa Jaunari begirune deusana
eta haren bidetik dabilena!
Zeure lanaren frutuaz biziko zara
eta zoriontsu izango, dana ondo jatzu joango.
Emaztea mahatsondo emonkorraren antzeko
izango dozu etxe-txokoan;
seme-alabak olibondo gazteen pareko
zeure mahai inguruan.
Horra Jaunari begirune deusarentzat
zer bedeinkazino!
Bedeinkatu zaizala Jaunak Siondik,
gozatu zaiezala bizitza osoan
Jerusalemen zorionaz,
ikusi daizuzala zeure umeen umeak!
Bakea Israeli!” (Sal 128, 1-6).

Bigarren kapitulua: Familien gorabeherak eta erronkak

<i>Sarrera</i>	[31]
<i>Familiaren egoera gaur egun</i>	[32-49]
<i>Erronka batzuk</i>	[50-57]

Aurkezpena

Kapitulu honen hasieran esaten da: *“Mesedegarría da errealdade zehatzean arretea jarteá, «Espiritu Santuaren eskakizunek eta deiek historiako gertaeretan be durundi egiten dabelako», eta gertaerok eurok «gidatu daikie Eleiza ezkontzaren eta familiaren misterio gortezinaren ulermen sakonago baterantz»*”. (31)

Aita Santuak berak *“ez dot gaurko testuinguruan familiari lotutako gai anitzen inguruan esan daiteken guztia hemen aurkezteko asmorik”* (31) badino be, kapitulu hau luzea eta korapilatsua da. Eta, izatez, ulergarria be badala esan daiteke, Sinodoetan *“mundu guztiko familien errealdadea aztertu”* zala kontuan hartzen badogu. (31)

Kapitulu hau atal bitan banatzen da eta, egia esan, ez dira nahiko aurkezten dan eduki zabal eta anitza antolatzeko. Horregaitik, une batzuetan, kontu batzuk, familien errealdade anitzean azaltzen diran gai batzuk, behin eta barriro esaten dirala ikusten da. Dana dala, aparteko eragozpen barik irakurri daiteke.

Kapitulu honen lehenengo atalean, familiaren gaur egungo egoera azterteagaz batera, ezkontzaren eta familiaren inguruko Eleizaren pastoralgintzan be arrera jarten da. Dalako pastoral jarduera hori autokritika eginez aztertzeko deia egiten da eta, aldi berean, jarrera eta ekimen barriak aurkeztu.

Bigarren atalean, erronka batzuk aurkezten dira, lehenengoan antzemandako erronkei gehitu beharrekoak. **Erronka barri** lez aurkezten dira, hain zuzen be, holantxe agertu ziralako Sinodoetan edo oraintsu agertu diralako gizarte mailan nabarmentasun handiagoz edo sentsibilitate barritik, hobeto antzeman izan diralako.

Aholku-hitz honen tonu orokorra kontuan hartuta, guztiz interesgarria eta bidezkoa da familien errealidadean izaten diran -nahiz eta askotan erdi ezkutatuta izan- alderdirik baliotsuenak eta positiboak itxaropenez nabarmentzea eta agertzera emotea.

Hauxe irakurri daiteke kapituluaren amaieran: *“Sinodoetako hausnarketen ostean, ez dogu familia idealaren estereotiporik, poz, drama eta ametsez betetako makina bat errealidadez osotutako «collagea» baino. «Collage» horrek gure arreta erakarri behar dau, beraz, misiolari sormena biztu orde, ez gaitazan geure burua defendatzeko kexuetan gastatzeko tranpan jausi... Zailtasun asko antzeman daikegu, bai, eta horreek gudan itxaropenaren indarrak askatzeko eta dalako indar horreek amets profetiko, jarduera eraldatzaile eta karidadearen imajinazio bihurtzeko dei baino ez dira”.* (57)

Hausnarketa eta alkarrizketarako argibideak

- Irakurri, arkatza eskuan dozula, Aholku-hitzaren 31-57 zenbakiak. Azpimarratu interesgarrien geratzen jatzuzan esaldi edo ideiak. Gogoan hartu ondo ulertu ez dozuzan puntuak edota taldean argitu gurako zeunkezanak eta batzarrean aurkeztu.
- Lehen irakurketan beharbada ez dogu eskema argirik ikusiko. Dana dala, ondorengo itaunketa erantzute aldera, barriro be testua irakurri ezker, gaiak zelan edo halan ordenatuta dagozala nabarituko dozu.

Itaunketa

- 1- Aholku-hitzaren bigarren kapitulua irakurri ondoren, ze eretxi dozu bertan azaltzen danaren inguruan?
- 2- Aitatu familien egoeran eraginik handiena daben gaur egungo kultura edo pentsamentuaren elementu nagusiak.
- 3- Zure ustez, senar-emazteen arteko familiako hartu-emonean, zeintzuk dira gehien eragiten daben alderdiek? Zergaitik?
- 4- Zelan baloratzen dozu gure indarrean dagoan familia politika? Ze lorpen eta gabezia ete dau politika horrek?

- 5- Gaur egun, ebanjelizatzea, karidatea, ospakizuna eta alkartea alderdiak kontuan hartuta, zelan ulertzen dozu eskontza eta familia pastoraltza? Zeintzuk dira argilunak?.
- 6- Zeintzuk ete dira zehatz-mehatz zure familia bizitzan eragin gehien daben elementuak?
- 7- Idazkian aitaturako erronkak kontuan hartuta, zerk interpelatu zaitu gehien? Zergatik?
- 8- Aitatu, testua irakurri eta gero, familiaren inguruan aurkitu dozuzan alderdi positibo eta itxaropentsuak.
- 9- Irakurketa honetatik, atera ete dozu aplikazino praktikorik zure bizitzarako eta familiako hartu-emonetarako? Zein?

Otoitzaldia

1- Isiltasuna egingo dogu, kapitulu honetan aztertu doguzan kontuek durundi egin daien gure barruan.

2- Jaungoikoaren Hitza irakurriko dogu:

Mt 25, 35-40

"Gizonaren Semea, aingeru guztiak lagun dituala, aintzaz beteta etortean, bere errege-aulkian eseriko da. Herriak oro haren aurrean batuko dabek. Harek batzuk besteengandik bereizi egingo ditu, artzainak ardiak akerretatik bereizten dituan lez, eta ardiak bere eskuman eta akerrak ezkerrean ezarriko ditu. Orduan, erregeak eskumakoei esango deutse: «Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; hartu eizue munduaren sortzetik zuentzat prestatuta dagoan erreinua. Gose nintzalako eta jaten emon zeunsten; egarri, eta edaten emon; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri». Orduan, zintzoek esango deutse: «Jauna, baina noiz aurkitu zinduguzan goseak eta jaten emon geuntsun, edo egarriak eta edaten emon? Noiz aurkitu zinduguzan arrotz eta etxean hartu, edo larrugorri aurkitu eta jantzi? Noiz aurkitu zinduguzan gaixo edo kartzelan eta ikustera joan? ». Eta erregeak erantzungo deutse: «Benetan dinotsuet: Nire seniderik txikien honeetako edozeini egin zeuntsena, neuri egin zeunsten»".

3- Ahal izan ezkerro, musika nasaigarria entzungo dogu eta ebanjelioko txatal honek aditzera emon deuskuna batera jarriko dogu.

Hirugarren kapitulua: Jesusi begiratu: familiaren bokazioa

<i>Sarrera</i>	[50-60]
<i>Jesusek jainko egitasmoa bere egin eta osotasunera daroa</i>	[61-66]
<i>Familia Eleizaren agirietan</i>	[67-70]
<i>Ezkontzaren sakramentua</i>	[71-75]
<i>Hitzaren haziak eta osatu bako egoerak</i>	[76-79]
<i>Biziaren transmisioa eta seme-alaben hezkuntza</i>	[80-85]
<i>Familia eta Eleiza</i>	[86-88]

Aurkezpena

Aholku-hitzaren sarreran iragarri zanez, “*kapitulu labur honek ezkontzari eta familiari buruzko Eleizaren irakaspenaren laburpena jasoten dau*”. (60)

Kapitulua, sarreraren ostean, kristau ezkontzaren eta familiaren nondik norakoaren eta esanguraren oinarritzko alderdiak jasoten dabezan sei ataletan garatzen da. Kapitulu osoa irakurri ondoren, atalak banan-banan aztertzea komeni da, itaunketaren jarraibideak kontuan hartuta.

Kapituluaren lehenengo zenbakietan (58-60), bertan aztertzen dan gaiaren irakurketa eta ulermenerako oinarritzko erreferentziak nabarmentzen dira.

Lehenengo iragarpena errepikatzea eta *kerigman* sakontzea ezinbestekoa dala azpimarratzen dauan *Evangelii gaudium* dalakoaren aitamena egiten dau: “*Familien aurrean, familien artean, lehenengo iragarpena egin, hau da, ederrena, handiena, erakargarriena eta, aldi berean, beharrezkoena dan hori iragarri, jarduera ebanjelizatzailearen bihotza dana... azken batean, kristau heziketa oro, bete ezer baino lehen, kerygman sakontzea dalako*»”. (58)

Ezinbestekoa da lehenengo iragarpen horren garrantzia nabarmentzea, “*kristau familiaren misterioa ezin dalako ondo ulertu bere burua azkeneraino emon eban eta gure artean bizi dan Kristogan agertzer a emon jakun Aitaren amaibako maitasunaren argitan ez bada*”. (59) Eta, gainera, gaur familiaren Ebanjelioa bizitzeko eta transmititzeko ahalegina, hau da, “*ezkontzari eta*

familiari buruzko gure irakaskuntzak maitasun eta samurtasunezko iragarpen honetan inspiratu eta itxuraldatu behar dau, doktrina hotz eta hilaren defentsa huts bihurtu ez daiten.” (59)

Hauxe irakurri genduan aurreko kapituluaren: *“Askoren ustez, Eleizeak ezkontzari eta familiari buruz zabaldu dauan mezua ez da, ideal zorrotza aurkezteaz batera, ahulen aldeko hurkotasun errukitsuari sekula uko egin ez eutsan Jesusen predikua eta jarraien isla argia izan”.* (38)

Eta kapitulu honetan, abiapuntua Jesusen begirada dala nabarmentzen da: *“Berak maitasunez eta samurtasunez begiratu eutsen aurkitu ebazan emakume eta gizonei, euren bidean egiaz, eroapenez eta errukiz lagunduz, Jaungoikoaren Erreinuaren eskakizunak iragarrean”.* (60) Honako hau, kapituluaren lehen atalean (61-66) jasoten da eta baita laugarren atalean be: *“Hitzaren haziak eta osatu bako egoerak”.* (76-79)

Hausnarketa eta alkarrizketarako argibideak

- Irakurri, arkatza eskuan dozula, Aholku-hitzaren 58-88 zenbakiak. Azpimarratu interesgarrien geratzen jatzuzan esaldi edo ideiak. Gogoan hartu ondo ulertu ez dozuzan puntuak edota taldean argitu gurako zeunkezanak eta batzarrean aurkeztu.
- Kapitulu osoa irakurri ondoren, gero, atalak banan-banan aztertu eta landu, itaunketaren jarraibideak kontuan hartuta.

Itaunketa

- 1- Aholku-hitzaren hirugarren kapitulua irakurri ondoren, orokorrean, zer esango zeunke bertan aztertzen danaz? Irakurtzerakoan, aurkitu dozu deigarri gertatu jatzun punturen bat? Ze puntu eta zergaitik?
- 2- Kapituluko atalak barriro irakurri eta aitatu bakoxtetik zuretzat esanguratsua diran pare bat esaldi.

- 3- Norbaitek ezkontzaren eta familiaren kristau esanguraz galdetuko baleutsu, erantzun argia emoteko gauza izango zintzatekez? Zer esango zeunskio?
- 4- Taldean, batera jarri aurreko puntuan aukeratutako esaldiak eta azaldu zergaitik aukeratu izan diran dalako esaldiok.
- 5- Familia ebanjelizazioaren eragiletzat hartuta, Eleizak emoten dauan irakaskuntzaren oinarritzko puntuak jaso taldean egindako laburpenean.

Otoitzaldia

1- Isiltasuna egin eta Jaunagana joko dogu. Batzarrean sortu diran sentimenduak bihotzera eroango doguz..

2- Jaungoikoaren Hitza entzungo dogu.

Rt 1, 8-17

“Noemik esan eutsen bere erranei: «Tira, itzuli zaitetze zeuen etxera, nor bere amarenera. On izan bekizue Jauna, zuek niretzat eta hildakoentzat on izan zarien lez. Jaunak emon beizuez beste senar eta etxe bana». Orduan, Noemik besarkatu egin ebazan bere erranak, agurtzeko. Baina honeek, garrasika, negarrari emon eutsen, eta esan: Ez! Zurekin joan gura dogu zure herrira». Noemik erantzun eutsen: «Itzuli zaitetze, ene kutunok. Zergaitik gura dozue nigaz etorri? Honezkero izan ete daiket nik beste semerik zuei senartzat emoteko? Itzuli zaitetze, enetxook, zaharregia naz-eta ni barriro ezkontzeko; baina oraindik itxaropena izan eta, gaur gauean haurdun geldituta, semerik izango baneu be, hareek gizondu zain egon behar ete zeunkie? Besteren bategaz ezkontzeari uko egingo zeunskioe? Ez, ene kutunok, holakorik ez! Aurka jarri jat Jauna, eta zuei gertatuak nahigabeturik nauka». Hareek barriro be negarrari emon eutsen garrasika. Orduan, Orpak bere amaginarreba besarkatu eban eta bere herrira itzuli zan. Rut, ordea, amaginarrebagaz gelditu zan. Noemik esan eutsan orduan: «Hara, Rut, zure koinata bere herrira eta bere jainkoengana itzuli da. Zoaz zeu be haregaz». Baina Rutek erantzun eutsan: «Ez eskatu holakorik. Itzi zugaz joaten. Izan be, zu nora joan, hara joango naz neu be; zu non jarri bizitzen, hantxe jarriko naz neu be; zure herria zein, haxe izango da neurea be; zure Jaungoikoa zein, hatxe neurea be; zu non hil, hantxe hilko naz neu be, eta hantxe hobiratuko nabe. Betorkit Jaunagandik zigorrik latzena, heriotzak ez bestek zugandik aldenduko banindu!».”

3- Otoitza

Jaungoikoak bakarrik emon daike fedea,
baina zuk lekukotasuna emon daikezu.

Jaungoikoak bakarrik emon daike itxaropena,
baina zuk konfiantza emon deikiezu anai-arrebei.

Jaungoikoak bakarrik emon daike maitasuna,
baina zuk maitatzen irakatsi daikezu.

Jaungoikoak bakarrik emon daike bakea,
baina zuk alkartasuna eragin daikezu.

Jaungoikoak bakarrik emon daike indarra,
baina zu makalaren euskarri izan zaitekez.

Jaungoikoa bakarrik da bidea
baina zuk besteei erakutsi deikiezu.

Jaungoikoa bakarrik da argia,
baina zuk danen begien aurrean distirarazo daikezu.

Jaungoikoa bakarrik da bizia,
baina zuk bizitzeko nahia itzularazo deikiezu besteei.

Jaungoikoak bakarrik egin daike ezinezkoa dirudiena,
baina zuk ahal dana egin daikezu.

Jaungoikoak bakarrik dau nahiko bere buruagaz,
baina nahiago du zu aintzakotzat hartzea.

Campiñaseko (Brasil) talde baten otoitza

Laugarren kapitulua: Maitasuna ezkontzan

<i>Sarrera</i>	[89]
<i>Gure eguneroko maitasuna</i>	[90-119]
<i>Eroapena</i>	[91-92]
<i>Zerbitzuzko jarrera</i>	[93-94]
<i>Bekaizkeria sendatuz</i>	[95-96]
<i>Harrokeria eta handikeria barik</i>	[97-98]
<i>Adeitasuna</i>	[99-100]
<i>Eskuzabaltasuna</i>	[101-102]
<i>Barruko indarkeria barik</i>	[103-104]
<i>Parkamena</i>	[105-108]
<i>Besteakaz poztu</i>	[109-110]
<i>Dana parkatu</i>	[111-113]
<i>Konfiantza izan</i>	[114-115]
<i>Itxaron</i>	[116-117]
<i>Dana jasan</i>	[118-119]
<i>Ezkon-maitasunean hazi</i>	[120-141]
<i>Bizitza osoan, alkarbanatuz</i>	[123-125]
<i>Poztasuna eta edertasuna</i>	[126-130]
<i>Maitasunez ezkondu</i>	[131-132]
<i>Agertzera emoten eta hazten dan maitasuna</i>	[133-135]
<i>Alkarrizketa</i>	[136-141]
<i>Maitasun kartsua</i>	[142-164]
<i>Emozinoen mundua</i>	[143-146]
<i>Jaungoikoak bere seme-alaben poztasuna maite dau</i>	[147-149]
<i>Maitasunaren alderdi erotikoa</i>	[150-152]
<i>Indarkeria eta manipulazioa</i>	[153-157]
<i>Ezkontza eta birjintasuna</i>	[158-162]
<i>Maitasunaren eraldatzea</i>	[163-164]

Aurkezpena

Sarreran, hain zuzen be 6. zenbakian, kapitulu hau eta hurrengoia erdigunean kokatzen dira, baina ez bakarrik zenbaketari jagokonez, ordena hori egokitu jakelako, eurotan lantzen danak agiri osoan aparteko garrantzia daukalako baino.

Kapitulu honetan, **Gure eguneroko maitasuna** izeneko atalean, maitasunaren ereserkia (1 Ko 13, 4-7) deitutakoaren errepasso zehatza egiten da. Besteak beste, honeek aitatzten dira: *“benetako maitasunaren, egunez egun senar-emazteek euren artean eta seme-alabakaz konpartitzen daben bizitzan bizitzen eta lantzen dan maitasunaren ezaugarri batzuk. Horregaitik da baliotsua testu honen adierazpenen zentzuna zehaztea, familia bakotxaren bizitza zehatzean ezartzen saiatzeko”*. (90)

Pauloren idazkia aztertzean, alde batetik, jatorrizko esamoldeen esangura etimologikoan sakontzen dau eta, bestetik, senar-emazteen eta familiaren eguneroko bizitza josten daben jarrera eta egoeretan zenbateraino gauzatzen diran aztertzen dau. Maitasunaren ezaugarri honeetako bakotxak gure hartu-emon zehatzetan ze pisu dauan aztertzeko oinarria eskaintzen dau.

Kapituluaren gainerako ataletan, eguneroko hartu-emon horreek etenbako leialtasunerako bokazinoa dauan senar-emazteen arteko hartu-emonaren ikuspuntutik kokatzen ditu. Esate baterako, **Ezkon-maitasunean hazi** atalean, *“ezkontza Jaungoikoak deuskun maitasunaren isla”* (121) dala kontuan hartuta, haxe esate da, besteak beste: *“adiskidetasun zintzoaren ezaugarri guztiak dituan batasuna da: bestearen ona bilatu, alkarrekikotasuna, intimitatea, samurtasuna, egonkortasuna eta alkarregaz bizitako bizitzagaz eratzen dan adiskideen arteko kidekotasuna. Baina ezkontzak bizitza osoa alkarregaz konpartitzeko eta eraikitzeko egitasmo egonkorrean adierazoten dan eskusibotasun bereizezina gehitzen deutso guzti horri”*. (123) Eta ondorengoia errealismoz autortuz: *“beste persona bategaz era eksklusiboan eta behin betiko konprometitzek arrisku puntua dauala eta apustu ausarta dala”*. (132)

“Guzti hau etenbako hazkundera garoazan bidean egiten” (134) dala kontuan hartu behar dogu. Eta bide horretan, *“alkarriketa, ezkontza eta familia bizitzan maitasuna bizitzeko, adierazoteko eta garatzeko modu pribilegiatua”* dala antzematen da, berez, *“ikaskuntza luze eta saiatua eskatzen badau”* (136) be. Baina beti ez da egoki zaintzen eta, ondorioz, sarritan izaten dira errenkura eta kexuak, Aholku-hitzean jasoten diranen antzekoak: *“«Ez nau entzuten. Entzuten naua emoten dau baina, benetan, beste zerbaiten pentsatzen ari da»*. *«Hitz*

egiten dihardut eta bera nik noiz amaituko zain dala sentitzen dot». «Hitz egiten dodanean, gaia aldatzen saiatzen da, edo erantzun arinak emoten deustaz, alkarrizketa amaituzat joteko»". (139)

Maitasun kartsua atalak maitasunezko harremana batzen dabean emozino eta pasinoak aurkezten ditu eta ezkontza-bizitzako sexualitatearen balorazio positiboa proposatzen dau: *"Jaungoikoak berak sortu eban sexualitatea, opari zoragarria bere kreaturentzat". (150)* Horregaitik, beste hau be esaten da: *"ezelan be ezin dogu maitasunaren alderdi erotikoa baimendutako gatx lez edo familiaren onerako jasan beharreko zama lez hartu, senar-emazteen bategitea edertu egiten dauan Jaungoikoaren doe lez baino". (152)*

Ondorioz: *"Ezkontza-eredua ezin da eratu nork bere beharizanezi uko egiten deuten eta inongo gogobetetasun barik bakarrik bestearen ona egiteko dan dohaintza eskuzabal eta sakrifikatu lez bakarrik". (157)* Atal honetan, gainera, ezkontzaren eta birjintasunaren hainbat balio aztertzen da.

Kapituluaaren amaieran, **Maitasunaren eraldatzea** dalakoari buruzko ikuspuntu dinamikoa agertzen da: *"Senar-emazteen historian, itxura fisikoa aldatu egiten da, baina honek ez leuke maitasunezko erakargarritasunaren ahultzerik ekarri behar. Norbait maitemintzen danean, berariazko nortasuna dauan norbaitez oso-osorik maitemintzen da, ez bere gorputzaz bakarrik, nahiz eta gorputz horrek, denporeak dakarren makaltasunetik harago, beti adierazoko badau be bestearen bihotza harrapatu dauan nortasun pertsonal hori. Besteak nortasun horren edertasuna ikusteko gauza ez diranean, ezkontide maiteminduak antzeman egiten dau maitasun senez, eta maitasun hori ez da desagertzen". (164)*

Hausnarketa eta alkarrizketarako argibideak

- Kapitulo honen luzera kontuan hartuta, zati bitan irakurtea litzateke egokiena. Lehengo, **Gure eguneroko maitasuna** atala (90-119 zenbakiak) irakurri eta, ondoren, bigarren une batean, gainerakoak. (120-164)
- Irakurri, arkatza eskuan dozula, Aholku-hitzaren txatal honek banan-banan. Azpimarratu interesgarrien geratzen jatzuzan esaldi edo ideiak. Gogoan hartu ondo ulertu ez dozuzan puntuak edota taldean argitu gurako zeunkezanak eta batzarrean aurkeztu.
- Lehenengo zatia irakurri ondoren, lehenengo itaunketari erantzun. Hau amaitu eta gero, bardin jokatu: lehenengo bigarren zatia irakurri eta, ondoren, jagokon itaunketari erantzun.

Itaunketa

A) Gure eguneroko maitasuna

- 1- San Paulok 1 Ko 13, 4-7 txatalean maitasunaz egiten dauan deskribapenetik, zer gertatu jatzu deigarrien? Zergaitik?
- 2- Korintoarrei idatzitako gutunean jasoten dan ereserkiak maitasuna eguneroko hartu-emonetan bizitzearen hamabost ezaugarri erakusten ditu. Horreen artean, zortzi ezeztapen erara adierazoten dira: *“ez dau bekaizkeriarik, ez handiusterik, ez harropuzkeriarik. Ez da lotsabakoa, ez berekoiia, ez haserrekorra; kaltea ez dau gogoan hartzen. Ez da bidebakokeriaz pozten”*. Labur-labur, adierazo eizuz ezaugarri horreek baieztapen erara.
- 3- Zeure ezkontza eta familia bizitza kontuan hartuta, eta Korintoarrei idatzitakoa ahaztu barik, errepasatu eguneroko bizitzan maitasunaren garapenak izan beharko leukezan ezaugarriak eta erantzun:
 - 3.1.- Zure ustez, zeintzuk dira oinarrizkoak edo nahitaezkoak senar-emazteen hartu-emonean? Zergaitik?
 - 3.2.- Zeintzuk dira ezinbestekoak aita-ama- seme-alaba hartu-emonean? Zergaitik?
 - 3.3.- Zeintzuk dira eguneroko bizitzan gauzatzeko gatxanak? Zergaitik?
 - 3.4.- Gaurko kulturaren ezaugarri batzuei jagokonez, zeintzuk dira benetan korrontez kontra doazenak?
- 4- Zeure esperientzia kontuan hartuta, gehituko zenduke beste ezaugarriren bat eguneroko familia bizitzako maitasunaren garapen zehatza adierazoteko? Zein edo zeintzuk? Zergaitik?

B) Ezkon-maitasunaren hazte eta eraldatzeari buruz (120-164)

- 1- Hauxe jasoten da *Amoris laetitia* Aholku-hitzean: *“Zintzo jokatu eta autortu daiguzan errealidadearen zantzuak: maiteminduta dagoanari ez jako burutik pasatzen hartu-emon hori bakarrik aldi baterako izan daitekenik; ezkontzearen poztasuna sakontasunez bizi dauanarentzat egiten diharduan hori ez da iragankorra; hauskorra dan arren, maitasunez beteta dagoan ospakizunean parte hartzen dabenek, iraunkorra izatea espero dabe; seme-alabek, gurasoek alkar maite daiela nahi dabe eta leialak izan daitezala eta beti alkarregaz jarraitu daiela. Zantzu honeek eta beste hainbatek erakusten*

1.1.- Zuk zeuk, zelan ulertzen dozuz baieztapenok?

1.2.- Zelan ulertzen eta baloratzen dira gure inguruan? Zergaitik?

2- Beste hau be irakurri daiteke: *“Ezkontzan, maitasunaren poztasuna zaintzea komeni da”*. (126) *“Bizitzako poztasunik sakonena besteen zoriona eragin daitekenean azaleratzen dira”*. (129)

2.1.- Ikuspuntu honetatik, zehaztuko zenuke zure familia bizitzan bizi dozuzan poztasunik handienak?

2.2.- *“Jasoteak baino poztasun handiagoa dakar emoteak”*. Zelan ulertzen dozu, Apostoluen Eginak liburuaren arabera, San Paulok Jesusi egozten deusana esaera hau?

3- *“Ezkontzaren alde egiteak zera adierazoten dau: gertaera eta erronka guztien gainetik, bide bi bide bakar bihurtzeko erabagi benetako eta eraginkorra”*. (132)
Zeure esperientziatik:

3.1.- Zer da ezinbestekoa ezkontzan, bidea alkarregaz egiteko?

3.2.- Zeintzuk dira zailtasun nagusiak? Zeintzuk laguntzarik baliotsuenak?

4- *Amoris laetitia* Aholku-hitzak aparteko arreta eskaintzen deusna alkarriketari (136-141)

4.1.- Zelan baloratzen dozu atalaren hasierako baieztapena?: *“Alkarriketa, ezkontza eta familia bizitzan maitasuna bizitzeko, adierazoteko eta garatzeko bide pribilegiatu eta ezinbestekoa da”*. (136)

4.2.- Batu eta ordenatu irakurgaiaren alkarriketari lotuta aurkitu dozuzan ohar eta argibide nagusiak. (136-141)

4.3.- Zeure esperientziatik, zer da ezinbestekoa ezkontza eta familia bizitzan kalidadezko hartu-emon pertsonala garatzeko?

5- Maitasun kartsua atalari jagokozan 142-157 zenbakiak irakurri eta:

- Aukeratu ezkontza bizitzako pasinoari, erotismoari edo sexualitateari lotutako esaldirik esanguratsuenak.
- Batera jarri taldearen batzarrean, aukeratzeko izan dozuezan arrazoiengatik inguruan alkarrizketan jardunez.

5.1.- Adierazo zeuon berbak erabiliz *Amoris laetitia* idazkiko atal honen irakurketatik ateraten dozuezan ondorioak.

5.2.- Maitasunaren ze desbideratze salatzen da zenbaki honeetan?

5.3.- Zure ustez, ze eragile sozio-kulturalek zailtzen dau gaur egun maitasunaren alderdi erotikoaren ulermen zuzena?

6- Maitasunaren eraldatzea (163-164) da *Amoris laetitia* Aholku-hitz honen kapitulu nagusia dan honetako azken atala. Zer nabarmenduko zeunke bertatik? Zergaitik?

Otoitzaldia

- 1- Isiltasuna egingo dogu, batera jarri doguzan hausnarketetako batzuek eta Jaungoikoaren Hitzak durundi egin daien gure bihotzean.
- 2- Kapitulu honen oinarri izan dan Korintoarrei idatzitako gutunaren haritik otoitz egin daigun alkarregaz.

1 Ko 13, 1-13

“Nahiz eta gizakien eta aingeruen hizkuntzez hitz egin, maitasunik ez badot, brontze soinulari eta ezquila tintilari besterik ez naz. Nahiz eta profezi doea izan, nahiz eta misterio guztiak eta munduko jakintza guztiak ezagutu eta mendiak lekuz aldatzeko adinako sinismena izan, maitasunik ez badot, ez naz ezer. Dodan guztia behartsuen artean banatu eta neure gorputza erretzeraino emonda be, maitasunik ez badot, ez naz ezer. Maitasuna eroan onekoa eta bihozbera da; ez dau bekaizkeriarik, ez handiusterik, ez harropuzkeriarik. Ez da lotsabakoa, ez berekoia, ez haserrekorra; kaltea ez dau gogoan hartzen. Ez da bidebakokeriaz pozten, baizik eta egian pozten da. Maitasunak dana parkatzen dau, dana sinisten, dana itxaroten, dana ondo eroaten. Maitasuna ez da behin be itzaltzen. Profezi doea desagertu egingo da, hizketa arrotzez mintzatzea amaituko, ezaguera be amaituko. Erdizkakoa da-eta orain gure ezaguera, erdizkakoa gure profezia; eta, bete-betekoa iristean, desagertu egingo da erdizkakoa. Ume nintzanean, ume lez mintzo nintzan, ume lez sentitzen neban, ume lez juzgatzen. Gizon egin nazanean, itzi egin dodaz ume-gauzak. Orain dana ilun ikusten dogu, ispiluan lez; gero aurrez aurre ikusiko dogu; orain erdizka ezagutzen dot; gero oso-osoan ezagutuko dot dana, Jaungoikoak neu ezagutzen nauan lez. Hiru gauza doguz oraindanik, iraunkor diranak: sinismena, itxaropena eta maitasuna; baina hiruretan handiena maitasuna da”.

- 3- Amaitzeko, Jose Luis Peralesen abestia entzungo dogu : “Amor sin límites” (<https://www.youtube.com/watch?v=axHtwsv5VpA>)

Bosgarren kapitulua:

Maitasuna emonkor bihurtzen da

<i>Sarrera</i>	[165]
<i>Bizi barria hartu</i>	[166-177]
<i>Maitasuna haurdunaren berariazko itxaronaldian</i>	[168-171]
<i>Amaren eta aitaren maitasuna</i>	[172-177]
<i>Emonkortasun ugaritua</i>	[178-186]
<i>Gorputza bereiztu</i>	[185-186]
<i>Bizitza familia handian</i>	[187-198]
<i>Seme-alaba izan</i>	[188-190]
<i>Edadekoak</i>	[191-193]
<i>Anai-arreba izan</i>	[194-195]
<i>Bihotz handia</i>	[196-198]

Aurkezpena

“Maitasunak bizia emoten dau beti. Horregaitik, ezkon-maitasuna ez da bikotean agortzen”. (165) Kapituluaren hasierako baieztapen bi honeek bertan garatuko danaren aurrerapen dira. Eta ez datza emonkortasun biologikoan bakarrik, naturaltasunez pentsatu daitekenez, ezta familia handiagotzean be, bertan, harreraren, adopzinoaren edo babes eta alkartasunezko beste bide batzuen bitartez, kide barriak gehituz, familia zabalaren eremuan, gizartearen eraldatzaile lez familia zabal eta konprometituak izan daiken emonkortasunean baino.

Maitasun emonkorra honako alderdi honeen bidez adierazten da:

a) Senar-emazteek sortzen eta *arduratsu* hartzen daben bizi barria, semea edo alaba, familian hartzea, *Jaungoikoaren doe lez* datorren bizia onartzea da.(166)

Ezinbestekoa da ondorengoa nork bere egitea: “*Seme-alaba bakotxa ez da osagarria edo konponbidea, egundoko balio bakar eta errepikaezina dauan eta bere osotasunerako aita-ama maitasuna ezinbestekoa dauan gizakia da*”. (172) Eta biek (aitak eta amak) zaindu behar dabe, “*eginkizunak malgutasunez*

garatuz, familia bakotxaren inguruabarretara egokituta” eta “larregizko kontrola ezartzen daben gurasoek seme-alabak ezereztu egien dabezala” kontuan hartuta. (177)

b) Ondorengo biologikorik ezean, “nahiz eta seme-alabarik ez izan, ezkontzak bere balioari eusten deustso”. (180) Bestetik, “adopzinoa, familia testuinguru egokirik ez daukienei harrera egiteko bidea da”. (179) “ez bakarrik emonkortasun arazoak dabezan senar-emazteen kasuan”. (180)

c) “Senar-emazteek euren gizarte betebeharez jaubetu behar dabe argi eta garbi”. (181) “maitasunaren indarrak bategitearen kulturarantz eta zuzentasunaren aldeko borrokarantz” (181) eroaten daualako. “Familia solidarioak behartsuengana eta txarto pasatzen ari diranengana zabaltzen dira”. (183) Familia horreetako kideak “senidetasunez, ahulen aldeko gizarte sentiberatasunez eta itxaropen biziz beteta dagozalako”. (184)

c) “Familia nukleo txikia ezin da handitutako familiatik isolatu, laguntasun, konpainia edo maitasun faltan egon daitekelako bat baino gehiago”. (187) Familia zabalaren eremu honetan, “ez da seme-alaba izatearen kontzientzia galtzen” (188), “edadekoa, bere alkarteko kideatzat hartzen da”. (191) “bizirik eusten jako oroimen historikoari eta etorkizuna prestatzen da”. (193) “Familia handiak era askotako beharrianak dabezan personak eta egoerak buztartzen ditu”. (197)

Kristau familiak Eukaristian suspertzen dau sentiberatasun hori, bertan parte hartzeak Kristoren “gorputza bereiztea” eskatzen deuskularik.(185)

Hausnarketa eta alkarrizketarako argibideak

- Irakurri, arkatza eskuan dozula, Aholku-hitzaren 165-198 zenbakiak. Azpimarratu interesgarrien geratzen jatzuzan esaldi edo ideiak. Gogoan hartu ondo ulertu ez dozuzan puntuak edota taldean argitu gurako zeunkezanak eta batzarrean aurkeztu.

Itaunketa

- 1- Zeure esperientzia kontuan hartuta, zer esangura dauka familian bizi barria hartzeak? Zeintzuk dira alderdi positiboak? Ze zailtasun dakar?

- 2- Gure inguruari begiratuta, zer esango zeunke aitek eta amek seme-alaben hezkuntzan daben esku-hartzeaz?
- 3- Ze erantzukizun hartu beharko leukie alkarregaz, era berean? Ze elementu bereizten da bakoitzaren berariazko eginkizunen artean? Zergaitik?
- 4- Ezagutzen dozu seme-alabak harreran ala adoptatuta dituan familiarik? Zer deritxazu eta zelan baloratzen dozu? Zergaitik?
- 5- Ze sentsibilidade, jarrera eta konpromiso ditu “familia irekiak”? “Irekitze sozialari” jagokonez, ze mailatan jarriko zeunke zure familia? Ze alderditan hobetu daiteke zehatz-mehatz dalako ezaugarri hori?
- 6- Familia handia deitutako atalean (187-198), aukeratu zure ustez alderdirik garrantzitsuenak adierazoten dabean esaldiak.
- 7- Emonkor bihurtzen dan maitasunari buruzko kapitulu honetan, zer gertatu jatzu deigarrien? Zergaitik?
- 8- Gai hau irakurterakoan eta aztertzerakoan, aurkitu dozu zeure familia egoera interpelatzen dauan zerbait? Zer?

Otoitzaldia

Taldean elkarriketan landutakoa "barruratzea" eta Jainkoaren begirez begitatzea ahalbideratuko deuskun otoitzaldirako:

1- Isilune batean, durundi egin daiela zeure barruan sentimentuek, ideiek, deiek...

2- Jaungoikoaren Hitza entzungo dogu

Si 3,2-14

“Jaunak seme-alaben gainetik errespetarazoten dau aita, amaren aginpidea ezartzen umeen gain. Aita ohoratzen dauanak bere pekatuak ezabatzen ditu, ama errespetatzen dauanak altxorra metatzen. Aita ohoratzen dauanak bere seme-alabengan izango dau poza, otoitz egitean Jaunak entzun egingo deutso eskaria. Aita errespetatzen dauanak bizitza luzea izango dau, Jaunak esana egiten dauanak atsegin emongo amari: ugazabak baleuz lez zerbitzatzen gurasoak. Ohoratu aita hitzez eta egitez, haren bedeinkazioa etor daiten zuregana: aitaren bedeinkazioak seme-alaben etxea sendotzen dau, amaren madarikazioak oinarriak deuseztatzen. Ez harrotu aitaren desohoreaz: aitaren desohorea ez da harrotzeko bide zuretzat; aitaren ohorea da-eta gizakiaren harrotasuna, eta amaren desohorea seme-alaben lotsa. Seme, zaindu aita bere zahartzaroan, ez emon nahigaberik bizi dan artean. Burua galtzen badau be, izan parkabera; ez iraindu, indarrez bete zagozala-eta. Ez dau Jaunak ahaztuko aitari on egina, zeure pekatuen ordainetan hartuko deutsu kontuan”.

Ben Siraken sasoi eta kulturagaz alderatuta aurkitu daikeguzan aldeak gaudituta, ze gaurkotasun dau Itun Zaharreko idazki honek?

3- Une batez, batera jarriko doguz testua irakurri eta gero sortu jakuzan pentsamentuak.

Seigarren kapitulua: Pastoral aukera batzuk

<i>Sarrera</i>	[199]
<i>Familiaren Ebanjelioa iragarri gaur</i>	[200-204]
<i>Ezkongaiak ezkontza prestatzeko bidean gidatu</i>	[205-216]
<i>Ospakizuna prestatu</i>	[212-216]
<i>Ezkon-bizitzako lehenengo urteetan lagun egin</i>	[217-230]
<i>Baliabide batzuk</i>	[223-230]
<i>Krisaldietan, estualdietan eta zailtasunetan argi egin</i>	[231-252]
<i>Krisaldien erronka</i>	[232-238]
<i>Zauri zaharrak</i>	[239-240]
<i>Apurketa eta dibortzioen ostean lagun egin</i>	[241-246]
<i>Egoera korapilatsu batzuk</i>	[247-252]
<i>Heriotzak eztena sartzen dauanean</i>	[253-258]

Aurkezpena

Amoris laetitia aholku hitza deia da, eskaria, maitasunaren poztasuna gure sasoiko familietan ondoen gauzatzeko eraz hausnartu daigun. Horregaitik, kapitulu honen hasieran, “*alkarteek proposamen praktiko eta eraginkorrak zehazteko pastoral bide barriak garatu beharra*” (199) ezinbestekotzat jotzen da. Beste hau be azaltzen da: “*ez da nahikoa pastoral egitasmo handietan orokorrean familiaganako ardura jasotea. Familiak familia pastoraltzako eragile bizi izan daitezcan, «ezinbestekoa da familiari zuzendutako ahalegin ebanjelizatzaile eta kateketikoa»*”. (200)

Kapitulu honek, lehenengo atalean, osoko pastoral testuingurua aurkezten dau: Familiaren Ebanjelioa iragartea, azaltzen danetz, ereitean lankidetzan jardutea da, motibazioak eskaintzea, era guztietako egoeretan lagun egitea, benetako arazoetatik urrundutako iragarpen teorikoan ez gelditzea, balioak proposatzea, benetako familia bizitza galarazoten daben baldintzak salatzea.

"Misiolari bihotz-barritzea eskatzen deutso honek Eleiza osoari". (201)

"Familiak eurak familia pastoraltzaren hartzaile eta eragile" dirala kontuan hartuta, ezinbestekotzat jotzen da "beren-beregi familiei zuzendutako eta eurek gaur egun dabezan arazoei egokitutako parroki pastoraltza". (202) Laguntasuna emotean esperientzia daben pastoral eragileen prestakuntza ezinbestekoa dala be esaten da.

Kapituluko gainerako ataletan ezkontza eta familia bizitzako aldiak aztertzen dira: senar-emaztegaien konpromisotik bizitzaren azkeneraino, argilunak errealismoz aztertuz, erronkak antzemanaz eta aldi edo egoera desbardinei egokitutako pastoral erantzunak eratuz eta bideratuz.

Gutziz interesgarria da ezkon-bizitzako eta familia harremanetako une horreen bilakaeraren kontakizuna egitea, aldi edo egoera jakin bakotxerako egokienak diran pastoral oharrak txertatu ahal izateko. Beti be, familia bera eremu honetako pastoral eragile nagusia dala ahaztu barik..

Pastoral ikuspuntu beraz, hauxe proposatzen da:

- *"Ezkontzaren prestaketa gidatu" eta kerigmaren iragarpen barrituaz ospatu. (205)*
- *"Ezkon-bizitzako lehenengo urteetan lagun egin "eskarmetudun senar-emazteen partaidetzagaz" amaitutako zerbait ez ezik egitasmoa dan zerbait dala azpimarratuz". (217-227)*
- *"Krisialdietan eta zailtasunetan argi egin", arazoak ukatu barik. Komunikazioaren garrantzia baloratuz (231), beste era batera zoriontsu izaten ikasteko, krisialdi bakotxak maitasuna sendotuta birsortzea dakarrelako. (238)*
- *"Kasu batzuetan, banantzea saihestezina dala autortu", eta ezinbestekoa da berariazko bereizketa egitea, bananduei, dibortziatuei, abandonatuei pastoral laguntza emoteko. (241-246)*
- Egoera korapilatsuen -ezkontza mistoak, familia gurasobakarrak-aurrean, Eleizak *"bere egin behar dau bere muga bako maitasunean bere burua gizon eta emakume guztiei -inor kanpoan itzi barik- eskaintzen deutesen Jesus onaren jokaera". (250)*
- Dolu-prozesuetan laguntzea. (253-258)

Hausnarketa eta alkarrizketarako argibideak

- Irakurri, arkatza eskuan dozula, Aholku-hitzaren 199-258 zenbakiak. Azpimarratu interesgarrien geratzen jatzuzan esaldi edo ideiak. Gogoan hartu ondo ulertu ez dozuzan puntuak edota taldean argitu gurako zeunkezanak eta batzarrean aurkeztu.

Itaunketa

1. Familia pastoraltzako hartzaile eta eragile nagusia dala esaten da; zelan ulertzen dozu baieztapen hori? Eta ebanjelizazinoko hartzaile eta eragile nagusia izatea?
2. Zeintzuk dira, zure ikuspuntutik, familiak, familia pastoraltzako eragile nagusi lez, bere gain hartu behar dituan egiteko zehatzak?
3. Aholku-hitzean autortzen danez, ezinbestekoa da beren-beregi familiei bideratutako pastoraltza. (202) Garatzen da zure parrokiari berariazko pastoral hori? Zertan datza? Nork suspertzen dau? Zelan bultzatu edo osatu beharko litzateke?
4. Zer suspertu beharko geunke ezkontza eta familia pastoraltza benetako arazoetatik aldentutako iragarpen hutsean gelditu ez daiten?
5. Gure gizarte eta kultura inguru zehatzean, zer salatu beharko geunke familiaren benetako bizitza galarazoten dauan baldintza lez?
6. Zelan baloratzen dozu Aholku-hitzaren kapitulu honetan jasoten dan ezkontza eta familia bizitzako aldien deskribapena? Zein alditan jarri dozu arreta? Zeinek interpelatu zaitu gehien? Zergaitik?
7. Kapitulu zehar, aldi bakotzak aurkezten dituan erronkei pastoral erantzuna emoteko argibide lez aurkezten diranen artean, zeintzuk dira, zure ustez, interesgarrienak? Zergaitik? Ze jarraibide edo ekimen zehatz onartu eta bultzatu beharko geunke gure alkartean? Zergaitik?
8. Zu zeu, zelan sentitzen zara familia pastoraltzako eragile lez? Zeintzuk dira zure ezaugarri eta mugak? Zer jadesi edo garatu beharko zeunke? Zelan egin?

Otoitzaldia

- 1- Isilunea egingo dogu, aztertu barri doguzan idazkiek eragindako ideiak, sentimentuak, jarrerak... hausnartzeko.
- 2- Jaungoikoaren Hitza entzungo dogu.

1 Pe 3,8-17

"Izan zaitezte danok gogo eta sentiera bateko, alkarren senide on, errukior eta apal. Ez erantzun gaiztakeriari gaiztakeriaz, ezta irainari irainaz be, bedeinkazinoz baino, Jaungoikoak bere bedeinkazinoa jasoteko deitu zaitue-eta. Izan be, bizia maite dauanak, luzaroan bizi eta zoriontsu izan gura dauanak, mihina gorde behar dau gatxetik eta ezpanak engainutik. Gatxetik aldendu behar dau eta on dana egin, bakea bilatu eta haren bidetik ibili. Zintzoengan ditu-eta Jaunak begiak, hareen deiak entzuteko adi belarriak; baina gaizkileei arpegi emoten deutse Jaunak. Nork egingo deusue kalte, zuek beti on egiten saiatzen bazarie? Baina zuzen jokatzegaitik sufritu beharrean gertatzen bazarie, zorionekoak zuek! Ez izan inoren beldur, ez ikaratu! Ostera, autortu zeuen bihotzetan Kristo Jauna dala, eta egon beti prest zeuen itxaropenaren arrazoia eskatzen deusuenari erantzuna emoteko; baina egizue apaltasunez eta errespetuz, kontzientzia garbiz jokatuz. Holan, Kristoren sinisle lez dozuen jokaera onaz txarto-esaka ari diranak euren hitz gaiztoez lotsatuko dira. Edozelan be, hobe on egiteagaitik sufritzea, Jaungoikoak holan gura izanez gero, txarto egiteagaitik sufritzea baino".

Zelan argi egiten deutso Bibliako idazki honek pastoral eragile dan familiari?

- 3- Amaitzeko, otoitz egingo dogu: oración:

*Aita,
nire begiek Zuk ikusten dozuna ikusi daiela.
Nire belarriek zure ahotsaren burrunba entzun daiela
sortutakoaren uhinetan.
Nire ezpanek zure maitasun eta poztasunaren kantuak abestu daiezala.*

*Aita maitea,
garatu nire bitartez egiaren egintza.
Ipini eizuz nire eskuak besteen esanetara.
Nire ahotsak zabaldu daizala eten barik
maitasunezko haziak Zuretzat.
Jentea zure bila ari dan lur honetan,
nire oinek aurrera egin daiela beti
zuzentasunaren bidetik.
Eroan naizu nire ezjakintasunetik argira.*

*Aita, bultzatu nire bihotza,
maitasunez begiratu deiedan izaki bizidun guztiei.
Zure Hitza nirearen Maisu izan daitela.
Pentsatu nire pentsamentuez,
nire pentsamentuak zeureak diralako,
nire eskua zeure eskua da,
nire oinak zeure oinak dira,
nire bizia zeure indarra da,
zuzentasun sozial eta pertsonalaren alde burrukatzeko.*

Zazpigarren kapitulua:

Seme-alaben hezkuntza sendotu

<i>Sarrera</i>	[259]
<i>Non dagoz seme-alabak?</i>	[260-262]
<i>Seme-alaben heziketa etikoa</i>	[263-267]
<i>Zigorraren balioa suspergarri lez</i>	[268-270]
<i>Errealismo jasailea</i>	[271-273]
<i>Familia bizitza testuinguru hezitzaile lez</i>	[274-279]
<i>Bai hezkuntza sexualari</i>	[280-286]
<i>Fedea transmititu</i>	[287-290]

Aurkezpena

Honan justifikatzen dau Frantzisko Aita Santuak kapitulu honen garapena: *“Familien egiteko hezitzaile hau hain garrantzitsua danez eta hain korapilatsu bihurtu danez, puntu hau bereziki aztertu gurako neuke”*. (259)

Hasteko, baieztapen hau egiten da: *“Familiak ezin deitso euskarri, laguntasun, gidari izateari uko egin, nahiz eta bere metodoak behin eta berriz berritu eta baliabide barriak aurkitu beharra izan”*. (260) Baina beste hau be autortzen da: gaur egun, *“ezinezkoa da seme edo alabak bizi daitezkan egoera guztiak kontrolatzea”* eta, ondorioz, *“prozesuak sortu egin behar dira, eta ez hainbeste eremuak menperatu”*. (261)

Seme-alabagan, maitasun handiz, bere askatasunaren garapenerako, gaikuntzarako, osoko hazkunderako, benetako burujaubetza lantzeko prozesuak sortzea da batez be interesatzen dana. *“Hezkuntzak askatasun arduratsuak suspertzea dakar (...); euren bizitza, euren alkartearena, euren esku dagoala eta askatasun hori egundoko doea dala murrizketa barik ulertuko daben personak”*. (262)

Gizon eta emakumeen heldutasunean funtsezko alderdia dan heziketa etiko edo moralari jagokonez, hauxe nabarmentzen da: *“Gurasoek eskola ezinbestekoa badabe be euren seme-alaben oinarrizko heziketa ziurtatzeko, ez dabe inoiz bakarrik beste batzuen esku itzi behar hareen heziketa morala”*. (263) Eta gainera: *“Heziketa morala beti egin beharko litzateke metodo eraginkorrakaz eta seme-alaben berariazko sentsibilitatea eta hizkera bere egiten dituan*

alkarrizketa hezitzailean". (264) Izan be: "Askatasuna, sekulakoa da, baina alperrik galdu daikegu. Hezkuntza morala, azken batean, askatasuna lantzea da, baina naturaltasunez on egitera garo ezan barruko oinarri egonkor horreek garatzen laguntzen daben proposamenen, eragileen, ezarpen praktikoan, bizigarrien, sarien, adibideen, eredu, sinboloen, hausnarketen, aholku-hitzen, jokoaren azterketen eta alkarrizketen bitartez". (267)

Balioetan heztearen inguruan haxe esaten da: "Balioak, apurka-apurka proposatu behar dira; adinaren eta bakotxaren aukeren arabera, era bateko eta beteko bideetatik aurrera egin behar da, metodologia zorrotz eta aldaezinak ezartzeko asmo barik". (267) Egiteko honetan, "familia da giza balioen lehenengo eskola eta bertan ikasten da askatasuna behar dan lez erabilten. Askok eta askok jokamolde jakin bat dau bizitza osoan zehar, euren ustez, osmosi bidez edo, erakutsi jaken jokoera hori baliotsutzat daukielako". (274)

Kapitulu honetan, atal bana eskaintzen jake familia hezkuntzan guztiz garrantzitsuak diran kontu buri:

- Seme-alaben **hezkuntza sexuala**, maitasunerako hezkuntzaren barruan, une egokian eta bizi daben adinari egokitutako eran, hizkuntza barriagaz. (280-281)

- **Fede hezkuntza**. Etxean, familian irakatsi behar da fedearen arrazoi eta edertasuna antzematen; familian ikasi behar da otoitz egiten eta lagun hurkoaren zerbitzari izaten. Seme-alaba bakotxari egokitu behar jake fedeproposamena, askotan, ikasitako baliabide edo errezetek ez dabe-eta ezertarako balio. (287-288)

Azkenean, familiari beren-beregi jagokon jarduera ebanjelizatzailea deskribatzen da: familia, "pastoralgintzaren eragile bihurtzen da Barri Onaren ageriko iragarpenaren bidez eta hainbat bidetatik lekukotasuna emonez: behartsuen aldeko alkartasuna, gizon eta emakumeen aniztasunera zabaltzea, kreaizinoa zaintzea, guztion onaren sustapenaren aldeko konpromisoa, bidebako egitura sozialaren eraldaketa, errukizko obrak eginez". (290)

Hausnarketa eta alkarrizketarako argibideak

- Irakurri, arkatza eskuan dozula, Aholku-hitzaren 259-290 zenbakiak. Azpimarratu interesgarrien geratzen jatzuzan esaldi edo ideiak. Gogoan hartu ondo ulertu ez dozuzan puntuak edota taldean argitu gurako zeunkezanak eta batzarrean aurkeztu.

Itaunketa

- 1- Aitatu, labur-labur, seme-alaben hezkuntzaren inguruko kapitulu hau irakurri ondoren aterako zendukezan ondorio nagusiak
- 2- Gaur egun, eremu edo arlo guztien eragina kontuan hartuta, zeintzuk dira, zure ustez, familiak seme-alaben hezkuntzaren inguruan dituan aukera eta muga nagusiak?
- 3- Zelan ulertzen eta baloratzen dozu “*hezkuntzari, askatasun arduratsuek suspertzea jagoko*” (262) baieztapena?
- 4- Zelan buztartu daiteke seme-alaben hezkuntza moralean familiari berenberegiz jagokoa egitekoa eta eskolari jagokona?
- 5- Zer eskaini deikeo eta eskani beharko leuskio kristau alkarteak seme-alaben hezkuntza moralari? Ze bidetatik? Ze baliabideguz?
- 6- “*Giza balioetan lehenengo eskola dan familiaren*” (274) eginkizun hezitzailean, ze baliok nabarmendu behar dau?
- 7- Zeintzuk dira, zure ustez, gaur egun familiek seme-alaben hezkuntza sexualaren inguruan dabezan aukerak eta mugak?
- 8- Fede hezkuntzari jagokonez, ze aukera eta muga ditu familiak gaur? Zergaitik?
- 9- Familia bizitzan dozun esperientzian, eta seme-alaben hezkuntzari jagokonez, zeintzuk dira erronkarik, baliabide eraginkorrik, alderdi positiborik, mugarik, zailtasunik, babesik... aitagarrienak? Zergaitik?

Otoitzaldia

1- Jaunaren aurrean gagozala sentituko dogu, Bera gure barruan ari dala. Isiltasuna egingo dogu, batzar honetako hiru edo lau ideia, sentimentu edo dei entzuteko gure barruan. Gura dauanak, labur-labur, adierazo daitez dalako ideia, sentimentu edo deiok (ez da alkarriketarako unea, batera jartekoa baino).

2- Jaunaren Hitza entzungo dogu

1 Te 5,14-22

"Otoi, senideok: zentzarazo zabar dabilzanak, emon adore bihozgabetuei, eutsi ahulei, izan eroopen guztiekin. Ez itzuli inori gatxik gatx orde eta saiatu zaiteze beti alkarri eta danei ondo egiten. Zagoze beti pozik. Egin otoitz aspertu barik. Emon eskerrak beti, Jaungoikoak horixe eskatzen deusue-eta, Kristo Jesusenak zarienez. Ez itzali Espirituaren indarra, ez gitxietsi profezi doerik. Aztertu gauza guztiak eta hartu on dana. Zaindu zeuen buruak edonolako gaiztakeriatik!"

San Pauloren idazkian, ze argi aurkitu daikegu familian egiteko hezitzailea garatzeko?

Zortzigarren kapitulua:

Laguntasuna, bereizmena eta integrazioa hauskertasunean

<i>Sarrera</i>	[291-292]
<i>Mailaz mailako pastoralgintza</i>	[293-295]
<i>«Irregular» deitutako egoeren bereizmena</i>	[296-300]
<i>Zirkunstantzia aringarriak pastoral bereizmenean</i>	[301-303]
<i>Arauek eta bereizmena</i>	[304-306]
<i>Pastoral errukiaren logika</i>	[307-312]

Aurkezpena

Ikusminez espero zan kapitulu honen edukina *Amoris Laetitia* aholku-hitza bera argitaratu aurretik be eta era askotako jarrerakaz hartu izan da Eleizan sektore desbardinaren aldetik. Jakina, bere balioa gainerako kapituluena lakoa da eta danek batera multzo orekatua osatzen dabe.

Hizkera, beharbada, ez da hain ulergarria batzuentzat, aukeratutako esamoldeak zorrotzak eta zehatzak diralako eta lantzen dan gaia bera be sakona. Aurrerexi barik irakurri behar da, bertan jasoten dan egia ezagutzeko benetako jakin-minagaz. Funtsezko edukina errukiaren ikuspuntua da, berez, ulertzeko gatzak diran giza egoerei begiratzeko izaten dan jakin-min hotza edo ardurabakotasuna gaitzen eta baztertzen dauana.

Hemen -kapituluaren aurkezpen erara- funtsezko alderdiak nabarmentzen dabezan idazkien multzo ordenatua aukeratuko dogu. Interesgarritzat jota, 351 oharra be jaso dogu, bertara bialtzen gaituan paragrafoaren ostean.

Eleizaren oinarrizko pastoral jarrera:

"«*Eleiza jaubetzen da bere seme-alaba askoren hauskertasunaz*». Jesukristoren begiradaz argituta, maitasunez begirutzen deutse bere bizitzan osotasunez parte hartzen ez dabenei [...] *Beti bikaintasuna proposatzen eta Jaungoikoari ahalik eta erantzunik osoena emoteko eskatzen badau be, «Eleizak arduraz eta arretaz lagun egin behar deutse bere seme-alaba hauskorrenei, maitasun zauritu eta galduaz markatutako seme-alabei, barriro be konfiantza eta itxarpena emonez»*!". (291)

Ezkontzaren eredu betearen proposamena:

“Kristau ezkontza, Kristoren eta bere Eleizaren arteko batasunaren isla, gizonezkoaren eta emakumezkoaren batasunean gauzatzen da bete-betean; gizonezkoak eta emakumezkoak alkarrari emoten deutse euren burua maitasun eksklusiboan eta leialtasun askean; bata bestearen jaube da heriotzaraino eta zabalik dagoz bizia hedatzeko aukerari, etxeko eleiza eta gizarterako bizi barriaren legamia izateko grazia emoten deutesen sakramentuaren bidez sagaratuta. Bat-egiteko beste era batzuk ideal horregaz kontraesanean dagoz erabat, baina beste batzuek gitxienez era partzial eta analogoan gauzatzen dabe. Sinodoko Gurasoek adierazo eben, Eleizak baloratu egiten dituela ezkontzari buruzko euren irakaskuntzagaz oraindik bat ez datozen edo dagoeneko bat ez datozen egoeretan aurkitu daitekezan osagai eraikitzaileak”. (292)

Errukiaren oinarriaren ezarpena

“Danak txertatzean datza; banan-banan lagundu behar da, bakotxak aurkitu daian eleiz alkartean parte hartzeko bere bidea, bere burua «merezki bako, baldintza bako eta doako» errukiaren jasotzaile sentitu daian. Ezin da inor betirako kondenatu, hori ez dalako Ebanjelioaren logika. Ez naz ari ezkontza edo lotura barrian dagozan dibortziatuez bakarrik, guztiez baino, edozein izanda be euren egoera”. (297)

Bereizmena, akonpainamentua eta kontzientziaren umotzea:

“Egoerak era askotakoak izan daitekezala kontuan hartuta [...] banan-banako kasuen bereizketa pertsonal eta pastoral arduratsua egitea baino ez da geratzen [...] «Dalako fededun horreek Jaungoikoaren aurrean euren egoeraz jaubetzera eroango dituan» akonpainamenturako eta bereizketarako ibilpidea da”. (300)

“Personen kontzientzia hobeto txertatu behar da Eleizaren jardueran ezkontzaz dogun ikuskera objektibotasunez garatzen ez daben egoera batzuetan”. (303)

Erantzun pastoral praktikora heltzeko:

“Baldintza edo eragile aringarrien eraginez, gertatu leiteke, pekatuz jantzitako egoera objektibo batean -subjektiboki erruduna ez danean edo bete-betean ez danean-, Jaungoikoaren grazian bizitzea, maitatzea, eta

graziaren eta maitasunaren bizipenaren grazian haztea, horretarako Eleizaren laguntasuna jasoz'. (305)

Artzain Onaren bidetik:

“Bene-benetan uste dot Jesukristok, Espirituak makaltasunean isurtzen dauan onaren aurrean adi dagoan Eleiza gura dauala. Jesusen nahia da «guk benetan onartu daigula besteen bizitza zehatzagaz hartu-emonean jartea eta samurtasunaren indarra ezagutu daigula. Egiten dogunean, bizitza zoragarri korapilatzen jaku beti»”. (308)

«Errukiz bizitzeko deia jaso dogu, geuri be, lehenengo eta behin, errukia ezarri izan jakulako» (...) *«Eleiza ez da aduana; aitaren etxea da eta bertan lekua dogu gutako bakotxak eta gure inguruabarrek»*”. (310)

“Dei egiten deutset egoera korapilatsuak bizi dabezanei, konfiantzaz hurreratu daitezcan euren artzainakaz edo euren burua Jaunari eskainita bizi diran laikoakaz berbetan jardutera”’. (312)

Hausnarketa eta alkarrizketarako argibideak

- Irakurri, arkatza eskuan dozula, Aholku-hitzaren 291-312 zenbakiak. Azpimarratu interesgarrien geratzen jatzuzan esaldi edo ideiak.
- Gogoan hartu ondo ulertu ez dozuzan puntuak edota taldean argitu gurako zeunkezanak eta batzarrean aurkeztu.

Itaunketa

- 1- Orokorrean, ze eretxi dozu kapitulu honetaz?
- 2- Ze esaldi edo puntu gertatu jatzu deigarrien? Zergaitik?
- 3- 292. puntuan, kristau ezkontzaren eredu osoaren ohar edo elementuak azaldu ondoren, hauxe esaten da: “Bat-egiteko beste era batzuk ideal horregaz kontraesanean dagoz erabat, baina beste batzuek gitxienez era partzial eta analogoan gauzatzen dabe”.
 - Zure ustez, bat egiteko ze era dago kristau ezkontzaren ideal horregaz kontraesanean?
 - ¿Eta zeintzuk *“gitxienez era partzial eta analogoan gauzatzen dabe”*? Zergaitik?.
- 4- Ze egoera edo kasu zehatz ezagutzen dozu? Kristau ezkontzaren idealari lotuta, zelan identifikatzen dozuz? Kasu honeetan, antzematen dozu alkarteetan hobeto txertatzeko edo kristau bizitzan hazteko gogorik? Ze ekarpen egin dozu edo egin daikezu egoera horreetan?
- 5- Zelan ulertzen eta baloratzen dozu era guztietako egoera zehatzei erantzuteko proposatzen dan akonpainamentua, bereizmena eta integrazinoa?
- 6- Norbaitek, *Amoris laetitia* Aholku-hitza irakurri eta horren inguruan hausnartu dozula jakinda, barriro ezkontutako dibortziatek sakramentuak jadesteko daben aukereaz itaunduko baleutsu, zer erantzungo zeunskio?
- 7- Ze ekimen edo zerbitzu zehatz suspertu beharko litzateke gure alkarteetan aztertu doguzan era askotako egoerei pastoral erantzuna emoteko?
- 8- Batera jarri taldean bakarka emon dozuezan erantzunak, taldekide bakotxaren ikuspuntu eta erispideak aintzat hartuta.

Otoitzaldia

Taldean landutakoa “barruratzeko” eta Jaungoikoaren begiradaz barriro begiratzeko otoitzaldirako:

- 1- Jaunagaz gagozala, Berak gure barruan jardunean diharduala sentitu.
- 2- Isiltasuna egin.
- 3- Jaunaren Hitza geure egin.

Lk 15, 1-7

"Zegalari eta pekatari guztiak Jesusengana bildu ohi ziran hari entzutera, eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrear ari ziran esanez: «Horrek harrera ona egiten deutse pekatarietara, baita eurekin jan be». Jesusek parabola hau esan eutsen: «Zuetako nor, ehun ardi izan eta bat galtzen bajako, ez da, beste larogeta hemeretziak larrean itzita, galduaren bila joaten aurkitu arte? Eta aurkitzen dauanean, lepoan hartzen dau poz-pozik eta, etxeratzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten deutse: Egin festa nigaz, aurkitu dot-eta galdutako ardia!. Egia esan, Jaungoikoak be poz handiagoa hartzen dau bihotz-barritzen dan pekatari batengaitik, bihotz-barritu beharrik ez daben larogeta hemeretzi zintzoengaitik baino»!

- 4- Ahal izan ezkerro, musika nasaigarria ipini eta pentsatu: San Lukasen liburuko idazki honek, zelan argi egiten ete deutso gure hausnarketari? (ez da alkarrizketan jarduteko unea, batera jartekoa baino).

Bederatzigarren kapitulua:

Ezkontza eta familia espiritueltasuna

<i>Sarrera</i>	[313]
<i>Naturaz gaindiko alkartasunaren espiritueltasuna</i>	[314-316]
<i>Alkarregaz otoitzean Pazko argitan</i>	[317-318]
<i>Maitasun eskusibo eta askearen espiritueltasuna</i>	[319-320]
<i>Zainketaren, kontsolamenduaren eta estimuluaren espiritueltasuna</i>	[321-325]
<i>Otoitza Familia Santuari</i>	

Aurkezpena

Espiritueltasunak fedea bizitzeko era jakin bat adierazoten dau. Jaungoikoak gure bizitzarako dauan egitasmoaz jaubetzea da eta, ondorioz, bere Espirituaren gidaritza onartzea.

Kristinauarentzat, beraz, espiritueltasuna Jesusen Espirituaren arabera bizitzea da, hau da, geure benetako izaeraz jaubetzea. Geure bizitza Jaungoikoagandik, Jesusen erara, bere Espirituak zuzenduta eta suspertuta onartzea da. Horretarako, sinistedunak, hartu-emon barria izan behar dau bere buruagaz, Jaungoikoagaz, besteakaz eta bizi dan munduagaz.

Espiritueltasuna ez da pentsatzeko edo sentitzeko era bakarrik; espiritueltasuna ezin da murriztu errukizko zeinu edo ekintza batzuetara. Bizitzeko era jakin bat da, uste sendo eta sentimentu batzuez bustitakoa eta, gainera, jarrera eta konpromisoetan, hartu-emon eta jardueretan islatzen da eguneroko bizitzako alderdi guztietan.

Gure bizitza osoa bateratzen eta “*guztien gaintik dagoen, guztien bidez ari dan eta guztiengan bizi dan*” (Ef 4, 6) Jaungoikoaren ekintzara zabaltzen dauan kristau nortasuna da. Espiritu Santuaganako arreta eta leialtasunari esker, Jesukristo, fedearen mezua eta ebanjelioko balioak ezagun egiten jakuz.

Argi ikusi daiteke Frantzisko Aita Santuak ikuspuntu horretatik lantzen dauala ezkontza eta familia espiritueltasuna. Horregaitik, kapituluaren sarrera lez, handik aukeratutako testu batzuk eskainiko doguz:

- *“Vatikanoko II. Kontzilioak, laikoen apostolutzaz jardutean, familia bizitzatik sortzen dan espiritualtasuna nabarmentzen eban. Hauxe inoan: laikoen espiritualtasunak «ezkontza eta familia egoeratik eratorritako berariazko ezaugarriak bere gain hartu» behar dituala, familiako kezkak ez dirala «bere biziera espirtualetik» kanpo geratuko”. (313)*
- *“Jaunaren presentzia, eguneroko sufrimentuz, burrukez, poztasunez, saiakerez [...] beteta dagoan familia jakin eta zehatzean datza. Familia maitasunaren espiritualtasuna milaka zeinu benetako eta zehatzez osotuta dago. Alkartasunaren garapena dakarren doe eta topaketa anitz honeetan bizi da Jaungoikoa”. (315)*
- *“Familia bizitzako senide eta alkarte eskakizunak bihotza gehiago eta gehiago zabaltzeko aukera dira, eta horrek Jaunagazko topaketa gero eta beteagoa ahalbideratzen dau. Gurari espirtual sakonak dabezanez ez dabe sentitu behar familiak Espirituaren bizitzan haztea galarazoten deutesnik, alderantziz baino, Jaunak beragaz bete-betea bat egin daien jarten deutesn bidea dala sentitu behar dabe”. (316)*
- *“Ezkontide bakotxa sekula bakarrik izten ez gaituan Jaunaren hurkotasunaren zeinu eta tresna da betearentzat: «Ni zuokaz nago egunero, munduaren azkeneraino»!”. (317)*
- *“Bikote bizitza Jaungoikoaren jardun emonkorrean parte hartzea da, eta bikotekide bakotxa Espirituaren etenbako probokazinoa da bestearentzat. Jaungoikoaren maitasuna «gizonak eta emakumeak alkarri bere ezkonmaitasuna autortzeko darabilezan hitz bizi eta zehatzen bidez» adierazoten da»”. (321)*
- *“Izaki kuntun bakotxa Jaungoikoaren begiez begiestea eta beragan Kristo autortzea, esperientzia sakona da”. (323)*
- *“Espirituaren bultzadaz, familia nukleoa zabaldu egiten da, bere baitatik atera egiten da bere ona beste batzuegana isurtzera, zaintzeko eta euren zoriona bilatzeko(...) Familiak harrera egiten dau eta besteengana ateraten da, batez be behartsu eta baztertuengana. Etxeko eliza eta mundua eraldatzeko hil ala biziko zelula izanez bizi dau familiak bere espiritualtasuna”. (324)*

Hausnarketa eta alkarrizketarako argibideak

- Irakurri, arkatza eskuan dozula, Aholku-hitzaren 313-325 zenbakiak. Azpimarratu interesgarrien geratzen jatzuzan esaldi edo ideiak.
- Gogoan hartu ondo ulertu ez dozuzan puntuak edota taldean argitu gurako zeunkezanak eta batzarrean aurkeztu

Itaunketa

- 1- Adierazo, labur-labur, zeure hitzak erabiliz, zer ulertzen dozun espiritueltasunaz.
- 2- Orokorrean, zer deritxazu kapitulu honi? Aurkitu ete dozu barritasunen bat? Aitatu eizu.
- 3- Zure ustez, zeintzuk dira kristau ezkontza eta familia osotzen daberen oinarrizko esperientziak?
- 4- Zeure ezkontza eta familia esperientzia aztertuz, non, zelan, noiz, zergaitik... antzematen dozu bereziki Jaungoikoaren hurkotasuna zure bizitzan?
- 5- Ezkontza eta familia bizitzako ze une eta eremu dira benetan egokiak gure espiritueltasuna bat eginik konpartitzeko eta garatzeko?
- 6- Zelan bateratu eta konpartitu daikeguz gure alkar bizitzan bakotxak doguzan sentsibilitate espiritualak?
- 7- ¿Qué iniciativas o servicios concretos deberían promoverse en nuestras comunidades como respuesta pastoral de conjunto a las diversas situaciones que hemos contemplado?
- 8- Aukeratu kapitulu honetan, ezkontza eta familia bizitza sakontasun espiritual handiagoz bizitzeko lagungarri izan daitekezan esaldiak.

Otoitzaldia

Otoitz, isiltasuna... eginez

1- Isilik, irakurketaren ostean egindako lanean sortutako sentimentuek, ideiek, deiek... durundi egin daiela zugar.

2- Jaunaren Hitza entzungo dogu:

Erm 8, 14-19

«Jaungoikoaren Espirituak gidatzen dituanak Jaungoikoaren seme-alaba dira. Zuek ez dozue hartu esklabo egingo zaituen espiritua, bariro bildurpean bizitzera eroango zaituena, hain zuzen; zuek, seme-alaba egiten zaituen Espiritua hartu dozue, eta Espirituaren bidez “Abba!”, hau da, “Aita!”, esanez hots egiten deutzazue Jaungoikoari. Espiritu berberak barrutik autortzen deusku Jaungoikoaren seme-alaba garala; eta, seme-alaba bagara, baita oinordeko be, Jaungoikoaren oinordeko eta Kristoren oinordekide; izan be, neketan Kristoren kideko garanez gero, aintzan be beraren kideko izango gara. Nire eretxian, oraingo neke-lanak ezer gutxi dira gero gugar azalduko dan aintzaren aldean. Izadia bera be irrikaz dago, zain-zain, Jaungoikoak noiz agertuko zer dan bere seme-alaba izatea».

Gutun honek, ze argi egiten ete deutso ezkontza eta familia espiritualtasunari buruz egin dogun hausnarketari?

3- Aholku-hitzaren azkenean jasoten dan otoitza egingo dogu alkarregaz

Otoitza Familia Santuari

*Jesus, Maria eta Jose,
zuongan ikusten dogu*

*benetako maitasunaren distira;
zuongana joten dogu, konfiantza osoz.*

*Nazaretoko Familia Santua,
bihurtu gure familiak be
alkartasunerako leku eta otoitzerako afaleku,
Barri Onaren benetako eskola
eta etxeko eliza txiki.*

*Nazaretoko Familia Santua,
sekula ez daitela familietan indarkeriazko
itxikeriazko eta banaketazko gertaerarik izan;
zauritua edo asaldata
arindua eta sendatua izan daitela.*

*Nazaretoko Familia Santua,
Jaubetu gaitezala guztiok
familiaren izaera sagaratu eta bortxaezinaz,*

*Jaungoikoaren egitasmoan dauan edertasunaz.
Jesus, Maria eta Jose,
entzun, onartu gure erregua.
Amen.*

Laburpena

Aholku-hitza irakurri eta gero:

- Azaldu bost lerrotan *Amoris Laetitia* idazkian nabarmenduko zeunkena.
- Ideia bat aukeratu behar izan ezker, zein litzateke?
- Aholku-hitza irakurri aurretik zenduzan itxaropenak bete dira? Zertan bai eta zertan ez?
- Aholku-hitzean aurkezten diran pastoral jardueren artean, zein nabarmenduko zeunke? Zein garatu beharko litzateke zure inguruan?
- Amaitzeko, familiaren aldeko otoitza egin daikegu.

*Jauna, gure etxean, hitz egiten danean,
alkarri begietara begiratu deiogula eta batera haztea bilatu daigula;
inor ez daitela bakarrik egon, ez axolagabekeria ezta aspertasunean be;
ez daiguzala alde batera itzi
besteen arazoak,
behar dauana sartu eta ondo etorria izan daitela.
Jauna, gure etxean garrantzitsua izan daitela lana,
baina ez alaitasuna baino garrantzitsuagoa;
jatordua poz eta solaserako une izan daitela;
atsedena, bihotzaren eta gorputzaren bake izan daitela;
alkarregaz egotea izan daitela aberastasunik handiena.
Jauna, gure etxean,
makalena izan daitela arreta-gunea;
txikiena eta zaharrena izan daitezala maitatuenak;
geroak ez deigula bildurrik emon,
Jaungoikoa beti gertu dalako;
zeinu guztiak esanguraz beteta egon daitezala;
eskerrak emon deizuguzala
bizitzak eskaintzen eta zure maitasunak emoten deuskunagaitik.
Jauna, gure etxea harrera-lekua izan daitela
Betaniako Marta, Maria eta Lazaroren etxea lakoa.*

Oharrak

A series of 20 horizontal dotted lines for writing.

Lagungarri honeek **Gasteizko Eleizbarrutiak** egindako agiriaren moldaketa dira. Eskerrak emoten deusaguz, beraz, aitaturako Eleizbarruti horri konfiantza eta prestasunagaitik. Jatorrizko agiriari idazki, hausnarketa eta itaun batzuk gehitu jakoz, bakarkako eta taldeko lana errazteko.

Urria 2016



**Bilboko
Eleizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

**Ebanjelizazino eta Katekesirako Ordezkaritza
Familia**

Plaza Barria, 4 – 2º
48005- Bilbao
944795611
familia@bizkeliza.org
www.bizkeliza.org